

44 egunez egun

2013ko urtarila

Beasaingo udal aldizkaria beasaing



Argiteria berritu eta energia aurrezteko plana martxan

2 iritzia 3 gizartea: neguko plana 4 udal aurrekontua 5 elkarriketa: CAFeko langileak
6-7 energia plana 8 berdintasuna 9 antzokia 10 antzerki garaia 11 laburrak 12 agenda

Gizarte laguntzei eutsiko diegu

Hastera doan urte honetan, erronka zaila jarri dio udalak bere buroari; laguntza beharrean edo bazterketa arriskuan dagoen ahalik eta jenderik gehien laguntzea. Krisi gogor honek hainbat kolektibo kaltetu ditu, lehendik larria zen egoera okertuz. Horien artean daude adinekoak, bazterketa arriskuan dauden gazteak, etorkinak eta tratatu txarrak jaso dituzten emakumeak.

Adineko askok pensio lotsagarriak dituzte, eta horietako asko bakardadean bizi dira. Horiei laguntzen saiatzen gara, etxez etxeko asistentziaren bidez. Baina baditugu eguneko zentroa bezalako beste zerbitzu batzuk, zaintzaileen laguntzarekin, adinekoei giro atseginean eguna pasatzen laguntzen dietenak. Arangoiti egoitzako psikogeriatria unitate berria eta zaintzapeko etxebizitzak ere aipatu nahi genituzke, dependentzia egoeran dauden adinekoentzat ezinbesteko zerbitzuak dira eta.

Baztertze arriskuan dauden gazteen zatirik handiena programak egiten dituzte kaleko hezitzaileek, gazte horiei etorkizun hobe bat emateko helburuarekin. Indar

keria matxista jasaten duten emakumeei ere laguntza guztia ematen saiatzen gara, salaketak egiterakoan eta beraien inguruetik ateratzeko pisuak bilatzeko garaian. Etorkinen kolektiboari ere lana bilatzeko eta beraien egonaldia ahalik eta normalizatuena izateko laguntza ematen diegu. Azkenik, herriko elkarte eta boluntarioek egiten duten lana aipatu nahiko nuke, bai herrian bertan eta baita garapen bidean dauden herrietan egiten dituzten garapen proiektuetan.

Hori guztia kontuan izanda, udal gobernu honek ez du gizarte arloko gastu murrizketarik egin, laguntza behar dutenekiko elkartasuna mantendu egin behar delako. Urte berriari, ditxosozko krisi hau aurretik eramango duen uholde bat ekar dezala eskatuko genioke, ea tunelaren amaieran argi izpi bat ikusten hasten garen.

.....
iñaki saldaña • udaletik
.....



En este año que comienza nos marcamos el reto aún más difícil de ayudar a cuantas personas mejor. Esta crisis agota ya a muchos colectivos, entre los que destacaría la situación de nuestros mayores. Intentamos ayudarles mediante los servicios de asistencia domiciliaria, el centro de día o la nueva unidad de psicogeriatría en Arangoiti. También tenemos programas de ayuda para jóvenes en riesgo de exclusión, inmigrantes o el colectivo de mujeres maltratadas.

Es por todo esto por lo que este grupo no recorta en el departamento de Bienestar Social, porque hay que mantener en alto la solidaridad y la ayuda al que más necesite. Sólo pedimos un deseo para este año que llega, que una maldita riada se lleve esta dañina crisis y por fin veamos la luz al final de este larguísimo túnel.

.....
inkesta zer iruditu zaizu kiroldegiko lokalak berritzeko egindako partehartze prozesua?



Gorka García

Todo lo que sea mejorar viene bien. Siempre que hay cambios se crea cierta incertidumbre, pero tras varias reuniones parece que pinta bien. Viendo cómo está la obra y conociendo los planes del ayuntamiento, personalmente estoy muy a gusto y con muchas ganas de volver a meternos en el local.



Jon Olano 'Olarius'

Hasiera batean ez neukan esperantza handirik, udalak azken hiru agintaldietan egin duena ikusita. Baina ematen du oraingoan asmatu dutela. Hiru bileretara joan naiz eta gustura nago udalaren jarrerarekin. Behingoz gauzak serio egiten hasi dira eta lokalak ondo utziko dituzte. Baina honek jarraipena behar du.



Diego Gomez

Musika taldeak eta kultur elkarteak batu gara, eta denen artean adostu dugu funtzionamendua. Partehartze prozesu honen bidez jendea gehiago inplikatzeko lortu da. Orain geuk hartu behar dugu lokal horiek ondo mantentzeko konpromisoa; gogoaz jartzen badugu eta arduz jokotuta, aurrera aterako da.



Kalean adi eta garbituta dauden bideetatik ibiltzeko gomendioa egin du udalak.

Elurra eta izotza datozenenerako prest

Udaleko Zerbitzu Sailak prest du elurteei eta izotzari aurre egiteko neguko kanpaina; 30 tona gatz, elurra kentzeko makinak eta 24 lagunekoa taldea izango dute, irisgarritasuna bermatzeko

Elurrak eta izotzak herriko kaleetan eragiten dituzten arrisku egoerak ekiditeko asmoarekin, udaleko Zerbitzu Sailak prest du dagoeneko neguko kanpaina. Lan horretarako, elurra kentzeko pala duten bi ibilgailu, baserri bideetarako paladun traktore bat, gatz banatzeko 6 makina, eta elur fresagailu bat eta 24 langile (lau udal langile eta beste 20 laguntzaile) ditu. Langile horiek guztiak, sei taldetan banatuta aritzen dira lanean. Gatz biltzeko 30 tonako biltegi bat ere badute, beteta, negurako prest.

El departamento de servicios tiene preparada la campaña de invierno con todos los medios e intentando minimizar las situaciones de riesgo previsibles ante las nevadas y heladas. El año pasado, la actuación del departamento de servicios consiguió que los centros escolares, la residencia, los centros de día y los de asistencia sanitaria tuvieran los accesos transitables, a pesar de que las nevadas se suelen producir a deshoras y en todos los espacios a la vez.

Para todo ello, el departamento de

Joan den urtean, brigadetako langile en lanari esker, erresidentzia, eguneko zentro, osasun zentro eta ikastetxe guztietako irisgarritasuna bermatuta gelditu zen, nahiz eta elurra, askotan, desorduetan eta toki guztietan aldi berean egin. Izan ere, herritarrek oinarritzko zerbitzuetara iristeko aukera izatea eta ahalik eta bizimodurik normalena egin ahal izatea dira neguko kanpainaren helburuetako batzuk.

●● **Herritarrek oinarritzko zerbitzuetara iristeko aukera izatea da kanpainaren helburu nagusietako bat** ●●

servicios dispone de 2 barredoras equipadas con palas quitanieves, un tractor con pala quitanieves para dar servicio a la zona municipal, así como a zonas rurales, 6 esparciadoras de sal, 2 máquinas fresadoras de nieve, 24 operarios (4 trabajadores municipales y 20 de apoyo), distribuidos en 6 grupos. También disponemos en el almacén municipal de provisión de sal suficiente.

Herritarrei aholkuak

Elurra eta izotza datozenenerako, udala ez ezik, herritarrek ere prest egon daitezten, hainbat aholku eman dituzte udal zerbitzuetako langileek:

-) Elurteak ezohiko egoerak dira, eta zailtasunak eragiten dituzte egunero ko aktibitateak egiteko garaian; horregatik, batetik bestera mugitzerako garaian arreta jarri behar da.
-) Eguraldi iragarpenak jarraitzea komeni da, eta haiei kaso egitea, alferreko arriskurik ez hartzeko.
-) Auzotarren komunitate bakoitzak bere bitartekoak izan ditzala garejeen sarrera-irteerak edo aldapak garbitzeko.
-) Ahal dela autorik ez hartu; behar beharrezko kasuetan bakarrik erabili.
-) Ahal den neurrian, brigadetako langileek garbitutako kaleetatik ibili.
-) Oinetako egokiak jantzi eta erantzukizunez jokatu kaleetan ibiltzerakoan.

Aurrekontua osatzeko akordio bila

Beasaingo Udalak 13.500.000 euro inguruko aurrekontua izango du 2013rako, duela 5-6 urtekoaren parekoa. Murrizketak inbertsioen atalean egingo dituzte; gainerakoetan mantendu

Udal gobernu taldea 2013ko aurrekontua izango dena negoziatzen ari da gainontzeko alderdi politikoekin. Izan ere, helburua aurrekontu hori urtarrilaren erdi alderako ixtea eta onartzea da. 2013. urterako 13.500.000 euro inguruko diru poltsa izango du udalak. Udal gobernuak ki-deek azaldu dutenez, kopuru hori «2007-2008ko aurrekontuen parekoa» da. Izan ere, «sarrera gutxiago ditugu eta gastu korranteak gora egin du». Horrek murrizketak egitea eskatuko dio udalari, baina horiek inbertsioen kapituluaren egingo dituzte; hala, gainerako gastuen kapituluetan ez da murrizketa-rik egongo.

Udalaren gastuek urtetik urtera gora egiten badute ere, sarrerak beheraka doaz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Funtsetik datorrena izaten da udalaren diru sarrera garrantzitsua. 2013ko aurrekontuetan, 2012an jasotako kopuru bera aurreikusi da, alegia, 7.000.000 euro. «Azkeneko urteetako sarrerarik murriztena izango da. Iaz egin genuen aurreikuspena bete egin da. Orduan EAJk kritikatu egin zuen egiten genuen aurreikuspena oso kontserbadorea zela esanez, eta inbertsioetan diru gehiago aurreikusteko. Baina aurreikuspena bete egin da, eta azkeneko hiru urteetan, foru funtsaren likidazioa egiterakoan dirua itzuli behar izan du udalak, baina aurten ez dela itzulketarik egin beharko» azaldu dute.



Esteban Lasa kaleko aldapako zirkulazioa bi norabidetan jarriko dute.

Gastuak

- Udal langileen soldatak mantendu egingo dituzte. Guztira: 3.200.000 euro.
- Zerbitzuen arloko gastuak mantendu egingo dira. Gasturik handienak hauek dira: Serbitzu Elkartea 900.000 euro; Goroldi 289.137 euro; etxez etxeko laguntza zerbitzua: 432.900 euro.
- Herriko elkarten eta kultur elkarten diru partida mantendu egingo da.

Inbertsioak

Inbertsioen kapituluak 6.a. Inbertsioetarako 1.000.000 euroko partida izendatu dute. Gobernu taldeak inbertsio hauek proposatu ditu 2013rako. Dena den, «irekita gaude».

- Bidegorri sarea garatzen joatea. Gipuzkoa plazatik Oria pasealekura doan tartea egokitzea. 300.000 euro.
- Herriguneko zenbait tokitan TAO sistema jarri nahi da, autoen mugikortasuna ziurtatzeko.
- Esteban Lasa kaleko aldapa bi norabidekoa jartzea, herriko irteera errazteko eta Kale Nagusiko trafikoa arintzeko. 200.000 euro.
- Olaran ingurua garbitzea. 60.000 euro. «Gehiagorako ez dago eta ez da finantzaketarik lortzen».
- Argiteria: 125.000 euro. Agortatik Murumendira doan bidea konpontzea: 75.000 euro. Lur Sailen erosketarako: 100.000 euro. Harrera bulegoa egokitzea: 60.000 euro.

El gobierno municipal está negociando los presupuestos de 2013 con los demás partidos, con el objetivo de aprobarlos a mediados de enero. El ayuntamiento cuenta con 13.500.000 euros para el 2013, cantidad similar a la de los ejercicios de 2007 y 2008. Mientras los gastos siguen subiendo cada año, los ingresos no paran de bajar. Esto obligará al ayuntamiento a hacer reducciones, pero éstas se aplicarán en el área de las inversiones; no habrá reducciones en las demás áreas.

●● «Nuestras previsiones se han cumplido, y gracias a ello, este año no tendremos que devolver nada a la diputación» ●●

En cuanto a los ingresos, la fuente más importante es el Fondo Foral, del que hemos previsto la misma cantidad de este año, 7.000.000 de euros. Según el gobierno municipal, «se han cumplido las previsiones que hicimos el año pasado. Entonces el PNV criticó que eran unas previsiones conservadoras, y que gastaríamos más en inversiones. Pero nuestras previsiones se han cumplido, y gracias a ello ahora no tenemos que devolver nada a la diputación, como se ha tenido que hacer en otros años».

Jauregi, Masid, Zubeldia eta Lopez LABeko eta ELAko ordezkariak

“Langileen batasunarekin lortu dugu CAFeko zuzendaritzak EREa erretiratzea”

Azaroaren 26an CAFeko zuzendaritzak IV. Saileko 869 langileri eragiten zien lan erregulazio espedientea aurkeztu zuen. Bi astean egunero lau orduko lanuzteak eta hainbat mobilizazio egin zituzten CAFeko langileek, EREa kendu eta elkarrekin lan kargaren gutxitzeari irtenbidea aurkitzeko alternatibak aldarrikatuz. Abenduaren 17an, zuzendaritzak EREa erretiratu eta hitz egiteko prest zeudela esan zion enpresa batzordeari. Mobilizazioek eta batasunak indarra, alternatibak arrazoia eman dietela uste dute LABeko Urko Jauregik eta Adolfo Masidek, eta ELAko Asier Zubeldiak eta Antonio Lopezek.

Nola bizi izan zenuten azaroaren 26tik abenduaren 17rako tartea?

Asier Zubeldia: Tentsio handiko egunak izan dira langileentzat eta komitearentzat. Komitea oso elkartuta egon da. EREa kentzea, langileen batasunagatik eta presioengatik, eta alternatibak edukitzeagatik lortu da.

Adolfo Masid: Nik uste dut ERE hitzak izua sortzen duela eta horren inguruan batasun ikaragarria sortu da. Batasunarekin eta indarrarekin bai, baina beldur puntu batekin ere bai. Langileen gaitik pasatzearena ez genuen inola ikusten, ezin genuen onartu. Tentsio handiko uneak izan dira. Mobilizazioak eta batasunak eman digute indarra. Baina horretaz gain, alternatibak bagenituen, oso ondo aztertuta, eta ikusten genuen arrazoia genuela. Larria da irabaziak dituen enpresa batek EREa planteatzea bera. Parte hartzearen eta langileen iritzia kontuan hartuko duen eredu bultzatu behar dugu.

Behin EREa erretiratuta, zein irtenbide proposatzen duzue?

Masid: Enplegua arriskuan ikusita, uztailean, Lan Hitzarmenean, 35 orduak bultzatu genituen. Bagenuen soldatak igotzeko eskatzeko aukera, baina ardurazko jarrera bat izan genuen langileok eta guk gure lanpostuak defenditzeko neurria jarri genuen.



Adolfo Masid, Urko Jauregi, Asier Zubeldia eta Antonio Lopez.

Jauregi: Barne promozioen eta formakuntzaren bidez irtenbideak aurkitu daitezke koiuntura honetarako. Formakuntza inbertsio bat da, ez egoera hau estaltzeko partxe bat.

Zubeldia: Aurrejubilazioak, formakuntza, mugikortasuna, eszedentziak, atzerrian lan egitea borondatez, aparteko ordurik ez sartzea, lan egutegia egokitzea, absentismoa...

‘Gaurko borroka, biharko enplegua’ aldarrikatu duzue.

Zubeldia: Lana ekarri behar da Beasaina eta Iruna.

Masid: Gu ez gaude enpresa bultzatzen ari den modularizazioaren aurka.

Enpresaren azken helburua, beti, enplegua mantentzea izan behar da, eta sortzen duen aberastasuna banatzea.

Jauregi: Enpresa eraldatzen ari da baina horretarako plantilla guztia kontuan eduki behar da. Bulegoetan jendea egokitzen ari da, baina tailerrak ere mantendu egin behar dira eta etorkizunerako egokitu.

Gizartearen eta erakundearen babesa ere jaso duzue.

Masid: CAFek kanpoan eman duen irudia oso txarra izan da, horrelako irabaziak izanda, langileekin hitz egin gabe, inposizioaren bidetik eta langileok aportatu nahi genuenean EREa planteatzea... Gizartearen erantzuna berehala jaso dugu. Goierriko udaletatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik ere bai.

CAF EREarekin gizarteari iruzurra egitea dela ere azpimarratu duzue.

Zubeldia: Daukagun koiunturan eta 100 milioi euroko irabaziak dituen enpresa batek jendea langabeziarai bidali behar duela?

Jauregi: Ezin dugu langabezia poltsatik kobratu, denboratan lanik egin gabe dagoenaren poltsa beretik.

•• «La unidad y la presión de los trabajadores, y las alternativas propuestas, han hecho posible que la dirección de CAF retire el ERE» ••

Argiteria publikoan energia aurrezteko plana egin du udalak

Hiru urteko epean herriko argiteria publikoa aldatu eta bateratu nahi dute, energia aurrezteko eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko; plana dirulaguntzei eta aurrezkiari esker finantzatuko dute.

Beasaingo Udalak kaleko argiteriaren energia aurrezteko eta zerbitzuaren kalitatea bermatzeko plana diseinatu du: Argiteria Publikorako Udal Energia Plana (UEP), alegia. Gobernu batzordearen behin betiko onespena jaso zain badago ere, plan horren helburua, hiru urtean herriko argiteria publiko guztia aldatzea da, sistema guztia bateratu, arazoak konpondu eta energia aurrezteko. Aldaketa horiekin, kaleko argiteriaren energia kontsumoan %42ko aurrezkiak lortu nahi da.

Egitasmoaren kostu osoa 415.000 euro ingurukoa izango da. Kopuru hori hiru urteren buruan amortizatuko da, argindarraren fakturan aurreztuko denari eta erakundeetatik jasotako laguntzari esker, hala nola, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) eta Agenda 21 egitasmoarenak.

Energia aurrezteko da planaren ildo nagusia, baina ez bakarria. Izan ere, argiteria zerbitzua hobetzeko asmoz, sarearen mantentze eta kudeaketa lanetan ere aldaketak proposatzen dira. Mari Mar Celaya udaleko zerbitzuen saileko zinegotziak azaldu duenez, bi arrazoi nagusi izan dituzte plangintza hau lantzeko; batetik, Europatik datorren 1890/2008 Efizientzia Energetiko Erreglamendua bete beharra; eta bestetik,

Datuak:

%42 Argiteria berriarekin energia kontsumoan lortuko den aurrezpena. Hona energiaren kontsumoaren datuak, urtez urte:

- 2010. urtean: 1.550.489 kw.
- 2011. urtean: 1.474.371 kw.
- 2012. urtean: 1.380.000 kw. (azken urtean %10,95 jaitsi da)
- Helburua: Urtean 800.000 kw kontsumitzea.

kale batzuetan sortzen ari ziren segidako itzalaldiei aurre egitea. «Orain arte ez zen prebentziorako mantenu lanik egiten; arazoren bat zegoenean hura konpontzen zen, eta kitto. Baina orain, prebentzio lan hori egiten hasi gara, eta horretarako baliabide gehiago jarri dira, sarea zonaldeka banatu da eta esan genezake, gaur egun, sareari egiten zaion jarraipena zehatza dela».

Energiaren udal plana

Planaren aurreneko fasean, kaleko argiteriari helduko zaio, eta bigarren fase batean, udal eraikin guztietako argiteria izango da aztergai. Hala, 2014. ur-

tean udal eraikinetan energia aurrezteko planarekin hasiko lirateke. Hor sartzen dira udaletxea, kultur etxea, Usurbe antzokia, Antzizar kiroldegia, Urbietako etxea, euskaltegia, lokalak... Une honetan ordea, «gure helburua kaleko argiteria da, energia eta diru aldetik aurrezpen handiena hor dagoelako; kaleko argiterian bakarrik, 190.000 euro gastatzen dira urtean».

Energia aurrezteko helburu hori lortu asmoz, udalak kaleko eta eraikinen barruko auditoria energetikoak egin ditu. Azterketa horien emaitzak kontuan hartuta, hiru ekintza nagusi diseinatu dira. Batetik, kaleko farolen edo lanparen potentzia jaitsiko da, 1.100 unitatetan. Bestetik, eraginkortasun gutxiko argiteria buruak aldatuko dira, beste 425 unitatetan. Azkenik, argiteria publikoko koadroetan, gaueko ordu batetik aurrera, energia aurrezteko sistemak gaurkotuko dira. Gaur egun, 21 koadro nagusietan ezarrita dauden aurrezte sistemetan, 12 erreguladore berri jarriko dira; horietatik 5 unitate 2012an jarri dira, beste 3 jarriko dira 2013an, eta azken 4 unitateak 2014an. Kendutako unitateak, sistema nagusitik kanpoko koadroetan erabiliko dira, haietan ere energia aurrezteko lortzeko helburuarekin.

Energia aurrezteko sistema edo maki-

A falta de la aprobación definitiva por parte de la Junta del Gobierno, el Ayuntamiento de Beasain ha diseñado el Plan Municipal de Ahorro Energético (PAE) para Alumbrado Público, con el objetivo de conseguir ahorro energético en el alumbrado público y garantizar la calidad del servicio.

El objetivo del plan es: reducir un 42% el consumo de energía actual, mediante las acciones que se llevarían a cabo los próximos 3 años (considerando la totalidad de la red de alumbrado).

•• El coste del proyecto rondará los 415 mil euros, cantidad que será amortizada en tres años, gracias al ahorro y a las ayudas públicas ••

Durante los últimos años se han llevado a cabo una serie de iniciativas en ese aspecto. El año 2010 el consumo energético ascendió a 1.550.489 kW/h. El

año 2011 el registro marcó 1.474.371 kW/h. El año 2012 el consumo oscilará en torno a 1.380.000 kW/h. Por lo tanto, se ha conseguido reducir el consumo de energía un 10,95%. Este plan contempla actuar en la totalidad de la red y el objetivo es establecer el consumo en 800.000 kW/h al año.

El coste total del proyecto rondará los 415.000 euros, cantidad que será amortizada en tres años gracias al ahorro obtenido en la factura de energía y a las ayudas recibidas por parte de las



Ezkiaga auzoan dagoeneko jarrita dago energia aurrezten duen argiteria berria.

na hauek, programa informatiko baten bidez kontrolatu daitezke, eta udaltxetik bertatik jarraipena egiteko aukera dago. Hala, edozein akatsen aurrean, berehala jakin daiteke, eta modu horretan, akatsa lehen bailehen konpontzea lortu nahi da, herritarrak ahalik eta denbora gutxien egon daitezen argirik gabe.

Finantziazioa

Energiaren Udal Planaren aurrekontu osoa, 415.000 eurokoa izango da, eta hiru urteko epean gauzatuko litzateke. Finantziazioari dagokionean, plangintzak ez dio aparteko ahaleginik eskatuko udalari. Izan ere, Energiaren Euskal Erakundetik (EEE) eta Agenda 21 egitasmotik 226.786 euroko laguntza jasoko da, eta udalari ordaintzeko geldituko

zaion kopurua, 188.267 eurokoa izango da. Baina egin beharreko inbertsio hori ere, urte eta erdian amortizatuko dutela azaldu du Celayak, energian aurrezten denari esker –urtean 69.677 euro–, eta hori «oso garrantzitsua da etorkizunerako, batez ere energiaren prezioak igotzen jarraituko duela kontuan izanda».

Argiteria berria

Udalak jarri nahi duen argiteria berriaren emaitzak begi bistan daude dagoeneko. Ezkiaga etorbidean urrian zehar jarri ziren lanpara berriak, eta argiteria probatu ondoren, emaitzarekin gustura daude udal arduradunak. Aldaketa hauekin, lanparen potentzia %42 jaitsi da, eta beraz, baita kontsumoa ere. Lortutako aurrezpenaz gain, argiaren sen-

tsazioa hobea da, lehengo argi horixkaren ordeaz, argi zuria jarri baita.

2013. urterako aurreikusitako ekin-tzen artean, ondorengo guneetako argiteria egokituko da: Ezkierdi parkea eta Mariarats kalea, Erauski eta Andre Mari kaleen arteko berdegunea, Barandiaran parkea, eta Nafarroa etorbidea, Garmendia Otaolatik Mendeurren etorbidera bitartean.

Aldaketa horien baitan, beste bi ekin-tza ere aipatu dituzte udal arduradunak. Batetik, zuhaitzen itzalak edota argi punturik ez dagoen gune ilunei tratamendua emango zaie, argi uniformitatea hobetzeko. Bestetik, zebrabideen segurtasuna hobetu nahian, argiztapen berezia jarriko da zenbait puntutan, oinezkoentzat eta gidarientzat lagungarri izan dadin.

instituciones (Ente Vasco de Energía y programa Agenda 21).

Además del ahorro energético, se proponen cambios en la gestión del mantenimiento de la red, con el objetivo de mejorar el servicio de alumbrado. Según ha explicado Mari Mar Celaya, concejal del departamento de servicios municipales, hay dos principales razones que han hecho que se concrete dicho plan: por un lado, la necesidad de cumplimiento del Reglamento de Eficiencia Energética 1890/2008 y, por otro

lado, hacer frente a los apagones continuados de algunas calles.

En la primera parte del plan se abordará el alumbrado de las calles, y en una segunda fase, se examinará el alumbrado de todos los edificios municipales. Con la intención de abordar el objetivo de ahorro energético el ayuntamiento ha realizado auditorías energéticas de las calles y de los interiores de los edificios, y se han diseñado tres acciones principales en consecuencia de los resultados obtenidos:

Por una parte, se reducirá la potencia de las lámparas (1100 unidades). También se cambiarán las luminarias de alumbrado poco eficientes (425 unidades). A partir de una determinada hora, se activarán los sistemas de ahorro energético (reguladores de flujo) en los cuadros de alumbrado público. De los 21 cuadros principales se implantarán reguladores nuevos en 12 de ellos, durante los siguientes 3 años. Las unidades de-puestas se colocarán en cuadros no principales, para obtener mayor ahorro.

Berdintasun saila hasi da lanean

Maiatzera bitartean hilero egingo dituzte bilerak; emakumez osatutako gune bat sortu nahi dute

Pasa den azaroan hasi ziren Berdintasun sailetik antolatutako lehen bilerak egiten, eta maiatzera bitartean, hilero egingo dituzte. Orain arteko saioetan, bertako emakumez gain, Maroko, Argelia, Mali edo Argentinako jatorria dutenak elkartu dira. Bilera horietan izandako eskaerari erantzunez, eta «gobernu batzordearen helburuetako bat partaidetza izanik, emakumez osatutako gune bat sortzea izango da hurrengo erronka», Zezilia Herrador saileko zinegotziak azaldu duenez. Genero ikuspegitik «ekarpen garrantzitsuak» egiteko asmoa dute, eta bide batez, etorkinen integrazioa eta guztion heziketa ere landuko dira.

Hurrengo bilera, urtarrilaren 28an Berdintasun sailak antolatutako bilerak hilero egingo dira, maiatzera bitartean. Hileko azken astelehenetan bilduko dira, 17:00etatik 18:30era, udaletxeko batzar aretoan. Hurrengo bilera, urtarri-

laren 28an izango da. Deialdia irekia da parte hartu nahi duten emakume guztientzat. Haurtzaindegi zerbitzua ere eskaintzen dute; zerbitzu hori nahi dutenek, hilaren 24rako eman behar dute izena, 943 08 76 63 telefono zenbakira deituta, edo posta elektronikoa bidalita berdintasun@beasain.net helbidera.

•• **Zezilia Herrador:**
«Emakumez osatutako gune bat sortzea izango da hurrengo erronka» ••

En octubre comenzaron a celebrarse las primeras reuniones convocadas desde el área de igualdad, y seguirán realizándose hasta mayo. Hasta el momento se han acercado mujeres de Marruecos, Argelia, Mali, Argentina, Segura y Bea-

sain. Respondiendo a la petición de dicho grupo y «siendo la participación ciudadana uno de los objetivos del Equipo de Gobierno Municipal, el próximo reto será crear un espacio propio para mujeres» señala Zezilia Herrador, concejal del área; pues considera necesario contar con aportaciones desde una visión de género. Así mismo servirá para favorecer la integración de personas inmigrantes y sensibilización a la ciudadanía.

Estas reuniones se celebrarán mensualmente hasta mayo, los últimos lunes de cada mes en horario de 17.00 a 18.30. La próxima reunión se celebrará el 28 de enero en el salón de plenos del Ayuntamiento y está abierta a todas aquellas mujeres que quieran participar en ella. Se ofrecerá servicio de guardería y quienes lo necesiten tendrán que solicitarlo antes del 24 de enero llamando al 943 08 76 63 o enviando un mensaje a berdintasun@beasain.net

Eli Manterola Berdintasun teknikaria

“Elkarren artean erabakiko dugu guneak ze forma izango duen”

Berdintasun Saila arlo ezberdinetako emakumeekin bilduz hasi da aurreneko pausoak ematen. Eli Manterola teknikariak, orain arteko pausoak eta etorkizunerako asmoak zein diren azaldu du.

Zer nolako harrera izan du ekimenak? Jendeak beharra ikusten al du?

Asmubeko emakumeek aspaldiko aldarrikapena zutela diote Berdintasun Saila martxan jarri eta landuko duen teknikari baten beharra. Talde guztiek oso positibotzat jo dute era honetako ekimenak antolatzea eta bilerak amaitzean, «hurrengo noiz?» izan da galdera. Beraz, ilusioz eman diogu hasiera lanari.

Emakumez osatutako gune bat osatu nahi duzue. Zer forma hartuko du? Ze

helburu eta lehentasun izango ditu?

Izango duen forma elkarren artean erabaki beharko da, foroa, kontseilua... gehiengoak nahi duena. Helburuen artean: emakumeen partaidetza bultzatu; emakumezkoen eta gizonezkoen eskubideen desberdintasunaren gaineko erreflexio kritikoa egin, bere ekarpenekin ahal bada; genero ikuspegitik emakume hauek dituzten beharren diagnostikoa egin; etorkinen integrazioa landu eta herritarren sentsibilizazioa bultzatu, arlo honetan. Bestalde, Udal ordezkarietzat, lantzen aritu daitezkeen galetan, iritzia eta ahotsa, emakumeen ahotsa, izateko aukera eskainiko du.

Maiatzera arte hilero biltzeko asmoa



Eli Manterola.

duzue. Aurrera begira beste pausorik edo ekimenik aurreikusten al duzue?

Bai, beste ekitaldi batzuk lantzen ari gara. Otsailean mahai-inguru bat egingea espero dugu, eta martxoan eta apirilean hitzaldiak. Ahal den neurrian elkarlanean ariko gara Beasaingo Asmube, Ordiziko Kimetz eta Zumarragako Eraldatzen elkarrekin.



Ikusleen eguneko emanaldian sartzeko jende ilara, Usurbe antzokiaren atarian.

Antzokiaren aukera zabaltzen

Udal arduradunak gustura daude, kudeaketa eta irudi aldetik Usurbe antzokiak izandako aldaketa dela eta; aurtan abonua sistema berria estreinatuko dute, 5 saiotarako 15 euroko bonuarekin.

Usurbe antzokiak irailaren bukaran ekin zion aro berriari, eta udalaren ustez, «kudeaketan aldaketa bat ematea eta antzokiaren irudia berritzea» lortu dute hilabete hauetan. Aitor Larburu zinegotziaren arabera, lehen zegoen egoera irregularra konpondu eta «apustu serio bat» egin dute. Kudeaketa, zine arloan esperientzia handia duen Hirutek (HTK) enpresari eman zaio; Tolosako eta Zumarragako antzokiak ere beraiek kudeatzen dituzte. HTK enpresaren, Udalaren kultur sailaren eta Goieniz zineklubaren artean, antzokiaren erabilera zehazteko azpi batzorde bat osatu dute.

Larburuk azaldu duenez, «programazioan ere interes berezia jarri dugu, filme komertzialez gain euskaraz egiten diren filmak eta antzezlanak ere sartu ahal izateko». Hala, hilabetero izango diren filmen egitaraua argitaratzen da, eta horrela, «norberak etxean lasai ikusi dezake asteburu honetan edo hurrengoan zer eskainiko duen». Orain duten erroka, ikusle berriak erakartzea dela azaldu du. «Lehendik edo gaur egun zine kontsumitzaile direnak erakartzea erraza da, baina guk nahi duguna da beste herritar guztiei jakinaraztea zer eskaintza dagoen; gero beraiek erabakiko dute joan edo ez, baina jakin deza-

tela zer aukera dagoen herrian». Hala, zinea ikusteko ez dagoela Usurbilera edo Donostiara joan beharrik azaldu du, eta prezioak ere askoz merkeagoak direla.

Abonua sistema berria

Zinearen kudeaketa aldatzearekin batera, abonua sisteman ere aldaketak izango dira. Urte hasieratik, 5 saiotarako balioko duten bonuak aterako dituzte 15 euroan, orain arteko abonuen partez. Umeen saioko sarrerak 3,50 euroan izango dira salgai, eta helduenak 5 euroan; ikusleen eguneko eta zineklubeko sarrerak 4,50 euro balioko du.

Desde septiembre, el teatro Usurbe ha entrado en una nueva fase; durante estos meses, «se ha dado un cambio de gestión y de imagen» al cine, según el concejal Aitor Larburu. Opina que se ha puesto fin a una situación irregular, y se ha hecho «una apuesta seria». La gestión está en manos de la empresa Hirutek (HTK), que cuenta con una larga experiencia en la gestión de este tipo de salas, y que también lleva los cines de Tolosa y de Zumarraga. Además, se ha crea-

●● **Aitor Larburu: «Zinearen kudeaketan eta Usurbe antzokiaren irudian aldaketa bat ematea lortu da»** ●●

do una comisión de trabajo entre la empresa, Goieniz Zinekluba y el departamento de cultura del ayuntamiento, para coordinar el funcionamiento del cine.

En cuanto a la programación, se ha puesto especial interés en traer no sólo películas comerciales, sino también teatro y películas en euskara. Y gracias a la programación mensual, el usuario sabe qué películas se proyectarán durante todo el mes.

También se pondrá en marcha un nuevo abono de 5 sesiones que costará 15 euros. La entrada normal costará 5 euros; la de los niños 3,50, y la del día del espectador y la del cineclub 4,50.

Antzerkiarekin gozatzeko garaia

Zortzi euskal ekoizpen ekarriko ditu aurten Antzerki Garaiak Beasaingo eta Ordiziako antzokietara; sei euskarazkoak dira



Tartean teatro taldearen 'Lingua Nabajorum' umorezko antzezlan.

U rtea hastearekin batera dator aurten ere Beasaingo eta Ordiziako udalek antolatzen duten Antzerki Garaia. Urtarrilean hasi eta apirilera arte, zortzi antzezlan ikusteko aukera izango da, herri bakoitzean launa. Aurten, euskal ekoizpenak ekarri nahi izan dituzte antolatzaileek, eta zortzi saio horietatik sei euskaraz izango dira, eta bi gaztelaniaz. Kalitate aldetik ere «talde profesionalak eta obra onak» daude azaldu dute antolatzaileek.

Gurutze Sukia udaleko kultur teknikariak azaldu duenez, «arte eszenikoaren inguruan urtean zehar sortu dena erakustea» da Antzerki Garaia ekimenaren helburua, «sorkuntza horri bidea egin eta eskenatoki bat ematea». Hala, beti saiatu izan dira euskal konpainiak eta euskaraz egindako ekoizpenak ekar-

tzen, baina beti ez da posible izan egitaraua bertako lanekin osatzea. «Beti saiatu izan gara, herri bakoitzean euskarazko bina antzezlan jartzen, erdi eta erdi izan zitezen, eta lortu dugu. Baina hori lortzea urte askotan oso zaila egin zaigu, euskaraz ere ez delako guk nahi genukeen adina sortzen. Baina orain sorkuntza aldetik gehiago dago, eta osoa euskaraz egiteko ere emango luke». Hala ere, «badira herritarrek euskaraz ez dakitenak eta antzerkirako zailtasun handia dutenak, eta horiei begira bi emanaldi antolatu ditugu».

Beasainen eskainiko duten zikloko arruneko lana, *Esta noche no estoy para nadie* izango da. Lan horretan, «Madrilgo aktoreek parte hartzen dute, baina Xabier Agirre legorretarraren Txalo taldeak egin duen obra bat da». Gainon-

Egitaraua:

Urtarrilak 11

'Esta noche no estoy para nadie'. Txalo. 20:00 eta 22:30, Usurbe (Beasain).

Urtarrilak 18

'Cotillas'. Gorka Aginagalde & Txafas. 22:15. Herri antzokia (Ordizia).

Otsailak 8

'Publikoari gorroto'. Artedrama. 22:15. Usurbe antzokia (Beasain).

Otsailak 15

'Goenkale'. Pausoka - Glu Glu. 22:15. Herri antzokia (Ordizia).

Otsailak 22

'Hitzak'. Hika taldea. 22:15. Usurbe antzokia (Beasain).

Martxoak 8

'Lingua Nabajorum'. Tartean teatroa. 22:15. Usurbe antzokia (Beasain).

Martxoak 15

'Pottola'. Txalo produkzioak. 22:15. Herri antzokia (Ordizia).

Apirilak 5

'Gauerdian'. Tianttaka taldea. 22:15. Herri antzokia (Ordizia).

tzeko antzezlanetan, konpainiak eta aktore guztiak euskaldunak direla azaldu du Sukiak. Beasainen, aipatutakoaz gain, Xabier Mendiguren beasaindarrak idatzitako *Publikoari gorroto* lana, Hika taldearen *Hitzak* eta Tartean Teatroren *Lingua Nabajorum* obrak eskainiko dituzte.

Lan horietarako sarrerak, 10 eta 12 euro artean jarriko dituzte salgai. Bestalde, ziklo osorako balioko duen 60 euroko bonoa ere jarriko dute salgai. Usurbeko lehiatilan eta udaleko kultur eta euskara sailean erosi ahal izango dira.

Con el año nuevo llega la programación del Tiempo de Teatro que organizan los ayuntamientos de Beasain y de Ordizia. Desde enero hasta abril, se podrán ver ocho obras de teatro, cuatro en cada municipio. Este año todas las producciones son de compañías vascas, seis en euskara y dos en castellano. En cuanto a la calidad habrá «grupos profesionales y buenas obras» según los organizadores.

Gurutze Sukia, técnico de cultura, dice que el objetivo de este programa es «dar

●●«El objetivo del programa es dar un escenario a las producciones del mundo de las artes escénicas» ●●

un escenario a las producciones del mundo de las artes escénicas». Siempre tratan de traer las obras que se estrenan en euskara, pero también son conscien-

tes de que hay «un público que no habla euskara y al que le gusta mucho el teatro». Por eso han programado dos sesiones en castellano. Las obras que podrán verse en Beasain son 'Esta noche no estoy para nadie', 'Publikoari gorroto', 'Hitzak' y 'Lingua Nabajorum'. Las entradas costarán entre 10 y 12 euros. También habrá un bono para todas las sesiones que costará 60 euros; se puede comprar en la taquilla del cine o en el departamento de cultura del ayuntamiento.

Sorkuntzarako aretoen eskaerak

Kiroldegiko gazteen entsegu lokaletan egindako berrikuntzen ondoren, eta partehartze prozesuan erabakitakoaren arabera, orain lokalak banatzeko txanda da. Edozein sorkuntza mota egiten duten gazteek dute lokalak erabiltzeko aukera; horretarako, taldeek sorkuntza proiektu bana aurkeztu beharko dute, taldearen helburuak zehaztuz. Deialdi publikoa urtarrilaren bigarren hamabostaldian egitea espero da, eta laster emango dute horren berri. Informazio gehiago 943 02 80 66 telefono zenbakira deituta edo gazteria@beasain.net helbidera idatzita jaso daiteke.

'KulturTICK' ekimenarekin bat

Beasaingo Udalak bat egin du KulturTICK ekimenarekin, eta aurrerantzean, Usurbe antzokian erabili ahal izango da KulturTICK txartelak eskaintzen duen %25eko deskontua; bi sarrera doan jasotzeko aukera ere izango dute. Txartela www.kulturTICK.com webgunean eskatu daiteke.

El ayuntamiento se ha sumado a la iniciativa KulturTICK, y los usuarios podrán disfrutar del descuento del 25% en las actuaciones de Usurbe Antzokia; así como de dos entradas gratis. La tarjeta se puede pedir en la página www.kulturTICK.com.

Udal Zergen Egutegi Fiskala

Beasaingo udalak 2013ko urteari dagokion Zergen Egutegi Fiskala argitaratu du dagoeneko. Bertan, udalak eta zergak ordaintzeko epeak ezartzen dira. Hauek dira, atalez atal:

- Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga: Urtarrilaren 2tik otsailaren 29ra.
- Zabor bilketa: Martxoaren 1etik apirilaren 30era.
- Ondasun higiezinaren gaineko zerga: Maiatzaren 15etik ekainaren 30era.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga: Urriaren 1etik azaroaren 10era.
- Ibilgailuak finka hiritarretan sartzeko sarrera: irailaren 1etik urriaren 31ra.
- Ibilgailuen geroaleku eta kokagunea: Irailaren 1etik urriaren 31ra.
- Kioskoak herri bidean: urriaren 1etik azaroaren 30era.
- Azoka: 1. hiruhilekoa (urtarrilak 2-otsailak 29); 2. hiruhilekoa (apirilak 1-maiatzak 31); 3. hiruhilekoa (uztailak 1-abuztuak 31) eta 4. hiruhilekoa (urriak 1-azaroak 30).

El ayuntamiento de Beasain pone en conocimiento de los contribuyentes el Calendario Fiscal de los Tributos de 2013, donde se establece el periodo de pago de los impuestos y tasas:

- Impuesto sobre vehículos de Tracción Mecánica: del 1 de febrero al 31 de marzo.
- Recogida de Basuras: del 1 de marzo al 30 de abril.
- Impuesto sobre Bienes Inmuebles: del 15 de mayo al 30 de junio.
- Impuesto sobre Actividades Económicas: del 1 de octubre al 10 de noviembre.
- Entrada de vehículos en fincas urbanas: del 1 de septiembre al 31 de octubre.
- Parada y situación de vehículos: del 1 de septiembre al 31 de octubre.
- Quioscos en la vía pública: del 1 de octubre al 30 de noviembre.
- Mercado: 1er trimestre (2 de enero - 29 de febrero); 2º trimestre (1 abril - 31 mayo); 3er trimestre (1 de julio - 31 agosto) y 4º trimestre (1 de octubre - 30 de noviembre).

Agifeseek ikastaroak antolatu ditu buruko gaixotasunak dituztenen zaintzaileentzat

Gaixotasun mentalei buruz ikasteko eta elkarbizitza hobetzeko helburuarekin, Agifisek Goierri gaixotasun mentala duten pertsonen familiarrentzat ikastaroa antolatu du, dohainik. Udaletxeko areto nagusian izango dira, 18:30etik 20:00etara. Lau saio izango dira, urtarrilaren 14an eta 28an, otsailaren 25ean eta martxoaren 11n. Agifesen eman behar da izena: 943 474 337.

Con el objetivo de aprender sobre la enfermedad y mejorar la convivencia familiar, Agifes va a organizar un curso para familiares de personas con enfermedad mental para el Goierri. Los cursos serán en el salón de pleno del ayuntamiento, de 18:30 a 20:00. El curso consta de cuatro sesiones: el 14 y 28 de enero, el 25 de febrero y el 11 de marzo. Para inscribirse hay que llamar a Agifes (943 474 337).

Adin txikikoentzat diru laguntzak

Garapen arazoak dituzten adin txikikoentzat diru laguntzak emango ditu Beasaingo Udalak, estimulazio-errehabilitazio programetarako. Baldintza hauek bete behar dira: 3-18 urte bitartekoa izatea, mendekotasun maila 2 edo 3 baloratua izatea; eskaera egin aurretik gutxienez urte bete Beasainen erroldatuta egotea; eta aurrera eramane behar den ekintza edo baliabideak suposatuko duen gastuak, beste inongo erakundeetatik diruz lagunduta ez egotea.

Udal Euskaltegian izena emateko epea

Urtarrilaren 9tik 18ra bitartean, zabalik egongo da Udal Euskaltegian izena emateko epea. Informazio gehiago jasotzeko deitu 943 02 81 00 telefono zenbakira edo euskaltegia@beasain.net posta helbidera idatzi.

Se abre el periodo de matrícula en el Euskaltegi Municipal desde el 9 al 18 de enero. Para ampliar la información llamar al teléfono 943 02 81 00 o escribir a la dirección de correo electrónico euskaltegia@beasain.net.



Gabon Gaztea ekimenaren barruan, skate txapelketa egingo dute.

2 asteazkena

10:00 Gabon gaztea: Futbito txapelketa, kiroldegian.

17:00 Gabon gaztea: Ping-pong eta mahai futbol txapelketa.

3 osteguna

10:00 Gabon gaztea: 3 x3 saskibalo txapelketa.

16:00 Gabon gaztea: Skate txapelketa, Gernika pasealekuko frontoi txiki estalian.

4 ostirala

09:30 Gabon gaztea: Mendi irteera Gaztelekutik.

17:00 Gabon gaztea: Bideo tailerra.

5 larunbata

11:00 Gabon gaztea: Gaztelekuan sukaldaritza tailerra, eta ondoren, bazkaria.

12:00 Erregeek haurren gutunak jasoko dituzte. Loinazko San Martin plazan.

18:15 Erregeen zamalkada herriko kaleetan barrena. Irteera, Zapatarri kaletik.

11 ostirala

20:00 eta 22:30 Antzerki Garaia: 'Esta noche no estoy para nadie'. Usurbe antzokian.

26 larunbata

18:00 Matemagia tailerra, Igartza errotan. Lemniskata zientzia elkartek antolatuta.

19:00 Hitzaldia: Matemagia, Fernando Blascoren eskutik. Igartzako jauregian



Erakusketak

Urtarrilaren 10etik 20ra: Jazpana Fest! 2012. Argazki rallya eta gehiago erakusketa. Usurbe Antzokiko erakusketa aretoan.

Zinea

El Chef (euskaraz)

6, igandea: 19:30-22:00.

7, astelehena: 19:30-22:00.

Declaración de guerra

10, osteguna: 21:00

(Goieniz zinekluba).

En la casa

12, larunbata: 19:30-22:30.

13, igandea: 19:30-22:00.

14, astelehena: 19:30-22:00.

Lily, la princesa hada

12, larunbata: 17:00.

13, igandea: 17:00.

Pluk (euskaraz)

16, asteazkena: 09:30 (Tinko).

Operación E

19, larunbata: 19:30-22:30.

20, igandea: 19:30-22:00.

21, astelehena: 19:30-22:00.

El mundo de Norman

19, larunbata: 17:00.

20, igandea: 17:00.

Cesar debe morir

24, osteguna: 21:00

(Goieniz zinekluba).

El cuerpo

26, larunbata: 19:30-22:30.

27, igandea: 19:30-22:00.

28, astelehena: 19:30-22:00.

Rompe Ralph

26, larunbata: 17:00.

27, igandea: 17:00.

El amigo de mi hermana

31, osteguna: 21:00

(Goieniz zinekluba).

Garingo festak

19-20 asteburua

San Sebastian jaiak ospatuko dituzte Garin auzoan, hilaren 19 eta 20ko asteburuan. Besteak beste, bazkaria, mus txapelketa, musika eta umeentzako jolasak izango dira.

beasain egunez egun

Argitaratzailea: Beasaingo Udala

Helbidea: Loinazko San Martin plaza

Posta elektronikoa: udala@beasain.net

Telefonoa: 943 02 80 50

Webgunea: www.beasain.org

Diseinua: Bidera Zerbitzuak